Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

# Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA jn.

Donostiako Udaleko idazkari nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián

Honakoa ziurtatzen dut:
Certifico:

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamaikako urriaren hogeita zazpian egin zuen ohiko bilkuran, **BILDU taldeak aurkeztutako erakunde adierazpen hau** onartu zuen, **Palestinaren aldekoa,** honako hau dioena, hitzez hitz:

*"PALESTINA: BIDEZKO BAKE IRAUNKORRA LORTZEKO, EZINBESTEKOA DA NAZIOARTEKO KOMUNITATEAREN LAGUNTZA*

*Irailaren 23an, Palestinar Aginte Nazionalak eskaria egin zion Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari Palestinako Estatua aitor zedin nazioartean 1967ko mugei jarraiki, eta Nazio Batuen Erakundean eskubide osoko kide gisa onartua izan zedin. Palestinako Estatu independente bat aitortzeko eskaria legezkoa eta bidezkoa da, herri guztiek autodeterminaziorako, burujabetzarako eta integritaterako duten eskubidean oinarritua.*

*Palestinako lurralde okupatuetako egoerak okerrera egiten duenez etengabe, eta azken urteotan bake-eztabaidak berrezartzeko ahaleginek fruiturik eman ez dutenez, agintari palestinarrek estrategia aldatzea erabaki dute; nazioarteko zuzenbidea erabili nahi dute, eta alderdi-aniztasunaren aldeko apustua egin. Hori horrela, ekimen hori aurkeztu dute Nazio Batuen aurrean, legez kanpoko okupazio israeldarra luzatu eta sakondu duen statu quoa amaitzeko asmoz.*

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el dia veintisiete de Octubre de dos mil once aprobó la siguiente **Declaración institucional presentada por el Grupo BILDU a favor de Palestina,** que literalmente es como sigue:

*"PALESTINA: LA PAZ JUSTA Y SOSTENIBLE PRECISA DEL APOYO DE LA COMUNIDAD INTERNACIONAL*

*El 23 de septiembre, la Autoridad Nacional Palestina solicitaba al Consejo de Seguridad de Naciones Unidas el reconocimiento internacional del Estado Palestino según las fronteras de 1967 y su admisión como miembro de pleno derecho en las Naciones Unidas. El reconocimiento de un estado Palestino independiente es una petición legal y legítima basada en el derecho de todos los pueblos a la autodeterminación, soberanía e integridad.*

*Ante el continuo deterioro de la situación en el territorio ocupado de Palestina y tras numerosos intentos infructuosos de retomar las conversaciones de paz a lo largo de los últimos años, los dirigentes palestinos han decidido cambiar su estrategia, haciendo uso del derecho internacional y apostando por la multilateralidad, promoviendo una iniciativa ante Naciones Unidas con el objetivo de romper el statu quo que ha venido prolongando y profundizando la ocupación ilegal israelí.*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N'97-06

*Egungo egoera gelditutа dagoenez, eta tokiko egoera gero eta larriagoa dela kontuan hartuta, uste dugu estrategia aldatu beharra dagoela, eta nazioarteko komunitatearen laguntza eraginkorra behar dela. Nazioarteko komunitateak konpromisoa hartu behar du palestinar herriaren ordezkari legitimoek nazioarteko justiziara eta horren tresnetara sartzeko aukera izango dutela bermatzeko, palestinar herri osoaren eskubide besterenezinen kaltetan izan gabe.*

*Era berean, gizarte zibil palestinarrak modu zabal eta demokratikoan parte hartu behar du –hain zuzen ere, ekimen honek eztabaida bizia eragin du gizarte zibilarengan–, Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) lurralde okupatuetan zein erbestean dauden palestinarren legezko ordezkari gisa jarduten duela bermatzeko.*

*Egungo egoeran, 2015 Plataformak, eta are gehiago gizarte zibil antolatuaren sareen esparruan lan egiteko ikuspegitik, berriz adierazi du nazioarteko komunitatearen laguntza eta babesa beharrezkoak direla bidezko bake iraunkorra lortuko bada; Nazioarteko Zuzenbidearen aginduak bete behar dira, eta, batez ere, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta giza eskubideak. Horregatik, uste dugu behin betikoz amaitu behar duela Israelen okupazioak lurralde okupatu palestinarretan –1967ko ekainaren 4ko mugek zehaztutakoak, Ekialdeko Jerusalem hiriburu dela–. Israelen herritartasun palestinarra dutenek eskubide-berdintasun osoa izan behar dute eta amaitu egin behar du egungo diskriminazio-egoerak; errefuxiatuta dauden palestinarrek eskubidea izan behar dute haien etxeetara itzultzeko, Nazio Batuen 194. ebazpenari jarraiki.*

*Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalbatzak honako adierazpen instituzional hau onartzen du: ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*LEHENA.- Palestina NBEko eskubide osoko kide izatearen alde dago Donostiako Udalbatza, NBEri eskatu berri zaionari jarraiki.*

*Consideramos que la actual situación de estancamiento, junto con el agravamiento de la situación en el terreno, necesita un cambio de estrategia que cuente con la participación efectiva de la comunidad internacional y con su compromiso real que, sin menoscabo de los derechos inalienables del pueblo palestino en su totalidad, habilite y garantice el acceso de sus representantes legítimos a la justicia internacional y sus instrumentos.*

*Igualmente, debe contarse con la participación amplia y democrática de la sociedad civil palestina, donde esta iniciativa ha generado un intenso debate, garantizando el papel de la Organización para la Liberación de Palestina – OLP como legítima representante del pueblo Palestino tanto en Territorio Ocupado como en la diáspora.*

*En la coyuntura actual la Plataforma 2015 y más desde su vocación de trabajo en el marco de las redes de la sociedad civil organizada, reitera su convencimiento de que sólo se alcanzará la paz justa y sostenible con el acompañamiento y protección de la comunidad internacional, asegurando el respeto y el cumplimiento de los dictados y prescripciones del Derecho Internacional, especialmente del Derecho Internacional Humanitario y los Derechos Humanos. Por eso consideramos necesario el fin de la ocupación israelí del Territorio Palestino Ocupado -delimitado por las fronteras del 4 de junio de 1967 con Jerusalén Este como capital-, el derecho de la ciudadanía palestina de Israel a la plena igualdad que termine con el actual sistema de discriminación y el derecho de la población palestina refugiada a regresar a sus hogares y tierras de acuerdo con la Resolución 194 de Naciones Unidas.*

*Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián aprueba la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL*

*PRIMERO.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián apoya la presencia de Palestina como miembro de pleno derecho de la ONU como recientemente se le ha solicitado.*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06